

HIRU BIDE LAPURRAK.

Horregatik, poztu egin zen hiru lapurrak aurrez aurre eduki zituenean. eta hauek etzuten ez besterik aurkitu, Uxue manta batean bildu eta gordelekura eramán zuten. bertan ohe bihun bat prestatu zioten eta lotan utzi zuten. Biharamunean esnatu zenean, altxorrez beteriko kutsa bati begira gelditu zen Uxue. Zer egin behar duzue honekin? -Galdetu zien lapurrei. Orduan lapurrek elkarri begiratu zioten herriturik. Ezitzaie inoiz burutik pasa zer egin behar zuten hainbeste urre-zilarrekin

Gaztelu erraldoi bat erosi zuten. Hain maite zuten Uxue, non lapurrak umezurtzak lapurtzera abiatu ziren beraiek hazi eta hezteko. Lapurtutako haur guztiak lapurren kapa eta kapelu berdinak zeramatzen baina... kolore gorrikoak.



Zalgurdiak pasatzen zirenean piper hautsak
jaurtitzen zieten muturreraeta... Gidariek,
gelditu egin behar...

Gero, haizkoraz txikitzen zituzten gurpilak eta
iskiluarekin bidaiariei mehatsu eginda puxka
guztiak kentzen zizkieten.

Mendi tontorreko etxean zeukaten lapurrek
gordelekua, hara ematen zuten ebatsitakoa.
Urrez, perlaz, eraztunez, ordulariz eta harri
bitxiz betetako kutsak zeuzkaten.

Behin, gau ezin ilunago batean zalgurdi bati
eman zioten alto... Bidaiari bakarra zekarren
gurdiak: Uxue izeneko umezurtza. Uxue triste
zegoen izeba kakerre batengana zihoalako
bizitzera. Eta... ez zitzaion batere gustatzen.

Baziren behin kapa beltz eta kapelu beltzeko hiru bidelapur. Lehenak iskilu bat zeukan, bigarrenak auzpo bat bete piper hauts, eta hirugarrenak haizkora gorri handi bat.

Gauetz, dena ilun zegoelarik, bide baztarrean jartzen ziren zain. izugarriak ziren. Azaltzen zirenean ondoeza egiten zitzaion jendeari. Isatsa hanka artean gordetzen zakurrei eta ihes egiten zuten gizonik kementsuenak ere.

Ahoz aho zabaldu zen haur umezurtzak biltzen zituzten bidelapurren kontua. Egunero aurkitzen zuten ahur berriren bat ate ondoan.

Han edukitzen zituzten haurrak beren gisa bizitzeko gai ziren arte.

Etxez bete zuten gaztelu ingurua herri bat osatuz. Kapa gorri eta kapelu gorritz betetako herria.. eta ezkerturik harresi handi bat jaso zuten herritarrek hiru dorre ederrekin, lapurrentzako bana.